



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 27an

87 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

C SAILA:

**Planak, Komunikazioak eta Programak:**

—Osoko Bilkurak, 2000ko urriaren 20an, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruz Nafarroako Gobernuak igorri duen komunikazioaren eztabaida zela-eta onetsitako erabakiak ([2. or.](#)).

---

**C saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Osoko Bilkurak, 2000ko urriaren 20an, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruz Nafarroako Gobernuak igorri duen komunikazioaren eztabaida zela-eta onetsitako erabakiak**

Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betez, Osoko Bilkurak, 2000ko urriaren 20an, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruz Nafarroako Gobernuak igorri duen komunikazioaren eztabaida zela-eta onetsitako erabakiak argitara daitezen agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Osoko Bilkurak, 2000ko urriaren 20an, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruz Nafarroako Gobernuak igorri duen komunikazioaren eztabaida zela-eta onetsitako erabakiak**

**LEHENA.** ETaren terrorismoaren eta indarkeria laguntzearen aurkako borroka demokratikoa eta gure Komunitatean dagoen askatasun eta segurtasun faltaren arazoa.

1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du ETaren eskutik aurtengoan izan den terrorismoaren areagotzea dela eta. Areagotze horren ondorioz gizarteak aho batez bere ahotsa altzarazi du beldurraren aurka eta bizitzeko eta askatasunerako eskubidearen alde. Halaber, berriz ere, Parlamentuak ETA talde terroristaren hilketak eta gizarte osoaren aurka darabilen eraso eta beldur kanpaina argi eta garbi gaitzesten ditu eta proiektu politikoak inposatzeko formula gisa indarkeria erabiltzea arbuiatzen.

2. Nafarroako Parlamentuaren iritziz bada eremu bat, herritarren eta talde politikoen arteko ezberdintasun politikoak baino lehenagokoa, bizitzeko eskubidearen eta norbanakoaren askatasunen aldekoa eta eremu hori terrorismoak bortxatu egiten du garbiketa ideologikoa eta hilketak eginenez. Egoera horrek terrorismoaren aurkako erresistentzia demokratikoa eskatzen du eta horrek

gizarte osoaren parte hartzea eskatzeaz ezezik, indar politiko demokratiko guztien batasuna ezinbesteko egiten du. Hainbeste pertsona bere ideiegatik mehatxatuta daudenean, hurbiltasun edo urruntasun ideologikoaren aurretik dago biktimen defentsa, eskubideen eta askatasunaren defentsa; alegia, bizi garen gizarte eta zuzenbideko estatuaren sistema demokratikoaren defentsa.

Halaber, norbanakoaren askatasun eta eskubideen defentsa, bakearen eta segurtasunaren defentsa eta elkarbizitzak eta pertsonetikiko errespetuak duten balioaren defentsa jarduera politikoa eta ezberdintasun ideologikoak baino lehenago dauden printzipioak dira. Printzipio horiek alderdi politiko demokratikoak eta indarkeria gaitzestu ez eta hartan oinarritzen diren taldeak bereizten dituzte.

Beraz, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du terrorismoa bukatzeko beharrezkoak direla indar demokratikoen batasuna, herritarrak mugitzea eta ETaren adar politikoarekin aliantza edo akordiorik ez izateko konpromisoa hartzea.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du terrorismoaren aurka indar politikoez egiten duten borroka demokratikoa Estatuko aferatzat jotzea nahi duela eta alderdien borrokatik eta hauteskundeetarako erabiltzetik at egon behar duela. Gobernuak, beraz, terrorismoaren aurkako eta bakearen aldeko politika bat bilatu beharra daukate oposizioko alderdiekin ados jarrita; eta hauek errespetatu egin behar dute terrorismoaren aurka adostutako printzipio horiek Gobernuak nola aplikatzen dituzten.

4. Nafarroako Parlamentuak argi eta tinko adierazi nahi du terrorismoaren biktimen eta haien senitartekoen oroitzapen eta gorazarrea eta babesten du Nafarroako Gobernuaren erabakia, alegia, terrorismoaren biktimei Nafarroako Foru Komunitateko Urrezko Domina ematea. Aldi berean, adierazten du biktimak eta beren senitarteko-

ak moralki eta materialki lagundu eta konpentsatzeko interes handiena duela.

5. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die zuzenean terrorismoaren aurka jarduten duten legezko erakundeei eta ETaren indarkeriaren aurka mugitzen diren herritarren mugimenduei. Ondorioz, bere babesa erakusten die Estatu Segurtasun Indarrei eta terrorismoaren aurkako borrokan parte hartzen duten polizia, epaileen erabakiei eta ETaren aurkako herritarren mugimenduan buru diren erakunde eta pertsonen. Halaber, ETA erakunde terroristaren kontrako borrokan nazioarteko laguntzaren beharra adierazten du berriz ere.

6. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroako autogobernuaren alde, komunitate propio eta bereizi gisa, lan egiten jarraitzeko duen borondatea. Foru Araubidea aitortu eta Espainiako Konstituzioan eta LORAFNAn barneratu zen momentutik bertatik, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako gainerako erakundeak aurrera darabagu gure proiektu politikoa, komunitate gisa, erkidegoen Espainiaren eta Europako Batasunaren eraikuntzaren barruan.

Nafarroako Parlamentuak berriz aitortzen die Nafarroako talde politiko guztiei beren erakunde-proiektuak defendatzeko duten eskubidea, arau demokratikoak eta Gizarte eta Zuzenbideko Estatuaren markoa errespetatuz. Halaber, uste osoa du beharrezkoa dela ahaleginak egitea gutxiengok Nafarroaren eraikuntza proiektuan barneratzeko; baina inork ezin du ahalegindu, Komunitateko herritarren borondatearen aurka, Nafarroak "euskal nazio" bat eraikitzeko proiektuan parte har dezan, gure etorkizuna hautatu eta nafar herritarren gehiengoak onartu duenean.

7. Nafarroako Parlamentuak bere interesa adierazten du gazteei bakearen, elkarbizitza demokratikoaren eta modernitatearen aldeko hezkuntza bat eman dakien, terrorismoaren aurkako borroka tresna gisa. Ondorioz, Nafarroako Gobernuak premiatzen du hezkuntza eta kultur plan bat egin dezan; plan horrek, balioen arloko hezkuntza eraginkor batetik, indarkeria politikoaren eta horrek gazteengan duen agerpenaren transmisioaren aurka bultzatu behar den prebentzio lana zehaztuko du.

**BIGARRENA.** Nafarroan Gizarte Ongizate Estatuak duen maila.

Askotan esaten da Nafarroako Foru Komunitatean gizarte ongizatearen maila nazioko batez bestekoaren gainetik dagoela eta Europako Batasuneko antzeko parametroetan dagoela. Aipatua oro har egia izanik, egia da ere nazioarteko

jarduera ekonomikoaren globalizazioak eta egungo gizarte bikoiztasuneko egoerek bazterketa sozialeko fenomenoak eragiten dituztela. Halaber, gizartean behar berriak sortzen dira, doktrinaren arabera Ongizate Estatuaren definizioan jasotzen ez direnak.

XXI. mendeko Gizarte Ongizatearen errealitatea eta haren norainokoa eta edukia ez da azaltzen ondoko parametro tradizionalen bidez: prestazio eta subsidio klasikoak (pentsioak, prestazioak langabeziagatik eta abar), edo laguntza unibertsaleko subsidioak (kalitatezko laguntza medikorako eta ospitaleetarako eskubidea). Aitzitik, politika publikoen koordinazio eta definizioan eta ekonomia arloko erabakietan agertzen da, horiek enplegua, laneko segurtasuna, adinekoei eman beharreko laguntza, etxebizitza eta abar bezalako eskariei aurre egin ahal dieten heinean. Inbertsio eta gastu publikoko kontua da, nahiz eta gobernuaren jarduketaren, kudeaketa publiko egokiaren eta sektore publiko eta pribatuak sustatzearen menpe ere badagoen.

Nafarroako Parlamentuak erabaki du, hausnarketa politiko eta alderdi politikoaren iritzia bateratu gisa, Nafarroako gizarte ongizatearen maila mantendu, indartu eta zabaltzeko politiken helburua izan behar dela:

1. Gizarte bazterketako eta gizarte bikoiztasuneko edozein fenomeno ekiditea.

2. Nafarroako herritarrei aukerak erdiesteko berdintasuna bermatzea.

3. Gizarte ongizatea indartu eta hobetzeko politika egoki baten oinarritzko elementutzat jotzea erabateko enpleguaren helburua –bai gizonezkoena bai emakumezkoena– bai eta enpleguaren kalitatea ere. Horretara bideratu behar dira ondoko inguruko politikak: hezkuntza, prestakuntza etengabekoa eta okupazionala, lan istripuei aurrea hartzea, Nafarroako industria sustatu eta garatzea eta fiskalitatea.

4. Erraztasunak ematea ohiko etxebizitza lortzeko, tipologia ezberdinetan, errenta mailen eta egoera pertsonalen arabera.

5. Beharrezko eztabaida eta programazioaren ondoren, pertsona nagusiei bere bizitzako bilakera eman beharreko laguntza definitzea, zorienez bizitzeko itxaropenaren batez besteko adina luzatzean sortzen diren gorabehera berriei egoki erantzun ahal izateko.

**HIRUGARRENA.** Nafarroan indar politikoaren migrazio-politika bideratu behar duten irizpide orokorrak aztertzeko batzorde berezi bat sortzea.

Zenbait urtetik hona, Nafarroa, Espainia osoa bezala, presio migratzaile handia jasaten ari da ondoko arrazoiak direla medio: gutxien kualifikatutako sektoreetan eskulanaren beharra handitzea, migrazio joera orokorrak eta globalizazioaren eta informazioaren gizartearen ondoriozko efektuak. Gero eta ekonomia sektore gehiago daude gure lan merkatuak eskaintzen ez duen eskulana eskatzen dutenak. Gero eta gizarte egoera gehiago daude etorkinek soilik ematen dituzten zerbitzuak eskatzen dituztenak, gure zaharren zainketa-erkin edo etxeko lanekin oro har gertatzen den bezala.

Nafarroak, beraz, momentu hauetan migrazio politika argi bat behar du, etorkinen gaiaren lanke-ta bereziki baita delikatu eta baita garrantzi handikoa ere gizarteko elkarbizitzarako eta gure demokraziaren kalitatearako. Gure etorkizunerako garrantzia handia duen gai baten aurrean gaude. Prozesu hori arautzea, integrazio eta elkarbizitzako arazoak konpontzea, esplotazioa eta neoesklabismoa saihestea eta hori modu ordenatu batean egiteak, gure beharren arabera, eta araudi orokor eta komunitarioarekin bat, lehen mailako lehentasun politikoa da.

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldearen iritziz gai horri indar politikoen arteko erabaki orokor baten parametroetatik ekin behar zaio, alderdikeriaren dialektikatik ihesi eta ekimen eta proposamenen adostasuna bilatuz. Migrazio politika argi baten alde egin behar dugu, etorkinak gizarteratzea ahalbidetuko duena lanaren edo familiak berrelkartzearen bidez. Normalki lanean ari den eta familiarekin dagoen etorkina gizarteratzen den eta herrialdea aberasten duen herritarra da. Normalean lanean ari ez den, gizar-tean lekurik gabe eta bertan familiarik ez duen etorkina arriskua da gizarterako.

Arrazoi horiengatik, Nafarroako Parlamentuari ondoko erabakia onets dezala proposatzen diogu:

- Nafarroako Parlamentua konpromisoa hartzen du Nafarroako Parlamentuan batzorde berezi bat sortzeko Nafarroan migrazio politika bideratuko duten irizpide orokorrak aztertzeko. Batzorde horrek, halaber, Inmigrazioko Plan Integral baten oinarriak prestatuko ditu migrazioaren erronkari aurre egiteko politika arautu eta aktibo batetik eta ikuspuntu integral batetik. Batzorde horretara agertuko dira udaletako ordezkariak, sindikatueta-ko eta enpresetako eragileak, GKEak eta gizar-te mugimenduak.

- Plan horren oinarri izanen da etorkinen oinarri-zko eskubide eta libertateak defendatzea. Planaren buru izanen da intergraziorako nahia, etorkin-kin ez baitira arlo publikoko arazo. Pertsonak

dira. Behar ditugun pertsonak eta eskubideak izanen dituzten herritar bilakatu nahi ditugunak.

- Nafarroako Gobernuaren eta udalen arteko lankidetzaren oinarri izanen da migrazio politika; hartara, etorkin-kin intergraziorako politikak toki entitateekin koordinatzeko finantziario fondo berezi bat sortuko da.

- Batzorde bereziak bere lanean bereziki zainduko du sasoikako langileei higie eta duintasun baldintzak betetzen dituzten etxebizitzetan ematen zaiela ostatu. Horretarako, beste lan-arteetan, Sasoikako langileei laguntzeko Planak –Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako Osoko Bilkurak proposatuta onetsia– aurtengoan izan duen aplikazioa aztertuko du.

- Batzordeak bere lanetan etorkin-kin gizarteratzea bultzatzeko politika sektorialak aztertuko ditu. Lan horietan sartuko dira etxebizitzaren arloan, hezkuntzan, osasunean eta gizar-te politiketan oro har egindako jarduerak.

- Langile etorkin-kin kontratazio eta lan prestazioen baldintzen lan- ikuskeraren planak ezagutuko dira eta arreta berezia ezarriko da etorkin irregularren kontratazioetan; izan ere azken horien ezabapenak gure herrialdeak egun jasaten duen legez kanpoko migrazio presioa gutxitzeari mesede egiten dio.

- Proposamenak egiten dira migrazio politikak bideratzeko irizpide orokorrak gizar-tean ezagunak izan daitezzen eta hezkuntzako eta kulturako balio- en artean izan daitezzen.

**LAUGARRENA.** Parlamentuaren jarduera politikoa herritarrengana hurbiltzeko neurriak hartzea.

Parlamentuko edozein jarduera politikoren buru izan behar du beti jarduera politikoren protagonisten eta herritarren arteko hurbiltasun handiagoa lortzeko tresnak bilatzea. Hartara, Nafarroako Parlamentuak politika orokorreko eztabaidan hausnarketa egin behar du bere jardueraren alderdi horretaz ere eta hurbiltasun hori ahalbidetzeko neurriak hartu. Hori dela eta, komunitateari buruzko eztabaidan hurrengo erabakia hartzea proposatzen dugu.

Nafarroako Parlamentuak, bere jarduera herritarrei hurbiltzearen beharrezko neurriak hartuko ditu hurrengo erabaki hauek praktikara eramateko:

- Nafarroako Parlamentuaren web orrialdea hobetzea, Parlamentuko talde bakoitzaren orrialde nagusiarekin konektatuz. Azken hauetan

bakoitzak bere ekimen parlamentarioekin lotutako edukiak sartu ahalko ditu.

- Urtean behin edo bitan, egokitzen diren egunetan, Nafarroako Parlamentuak inkesta orokor bat egitea, Komunitatearen egoera soziopolitikoaren barometro gisa. Inkesta horretan herritarren kezka nagusiak bilduko dira bai eta hauteskudeetan izan dituzten lehentasunei buruzko erreferentziak ere. Barometro horren emaitzak argitaratu egingen dira eta Parlamentuko talde eta komunikabide guztiei emanen zaizkie.

**BOSGARRENA.** Informazioaren Gizartea garatzearren Nafarroako estrategia bat prestatzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat presta dezan, Ezagutzaren Gizartea garatzeko Nafarroako estrategia bat bilduko duena. Besteak beste, ondokoak izanen ditu kontuan:

- Hezkuntza sistema egokitzeko programa berezi bat, bereziki Lanbide Heziketako zikloak egokitzeko. Hartara, askoz ere hobeki erantzun ahalko zaie informatikarekin lotutako espezialitate-arako langile nafar dituak hartzeko enpresaburuek egiten dituzten eskaerei;

- Gure historiaren eta gure errealitate bereki eta berezituaren edukiak bilduko dituen Nafarroako Entziklopedia egitea euskarri informatikoan, Nafarroako instituzioen web orri ofizialetan doan "esekitzeko";

- Herritarrarentzako zerbitzuak eta Administrazioa "on-line" garatzeko plana, legegintzaldi honetan zehar Administrazioaren gehiengoarengana iritsi ahal izateko;

- Enpresei transformatzeko laguntza ematea, batez ere enpresa txiki eta ertainei, informatizatu eta teknologia berriei egokitzeko.

- Nafarroako familiak Internetera konektatzeari dagokionez, oraindik orain dauden desberdintasunak zuzentzeko, politika-jarduna erabiltzea da Interneten erabilera progresista eta solidarioak agintzen duen aukera berdintasuna bermatzeko bide bakarra; horrenbestez, etxean erabiltzeko eta Internetera konektatutako ordenagailuak erosten laguntzeko neurriak hartzea proposatzen da, bai eta azpiegitura publikoak hobetzea ere, Nafarroako etxe guztietan teknologia berriak sartzeko epe laburrean errealitate bat izan dadin.

**SEIGARRENA.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuarekin hitz egiten jarrai dezan, Hobekuntzan aurreikusitako eskumen guztiak Nafarroari eskuordetuz esku-

menen maila handitzeko, eta Estatuak eskumen osoa izan arren Foru Komunitateak bereganatu nahi dituen eskumenak eskuordetzeko prozesua hasiz, Foruzangoak trafikoaren gaineko eskumen osoa bereganatzea esate baterako. Nolanahi ere, gure eskumen maila ez da gainontzeko erkidego historikoei aitortutakoa baino apalagoa izanen.

**ZAZPIGARRENA.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Toki Entitateen administrazio berrantolamendua dela-eta pausoak eman ditzan, borondatezkotasun eta parte-hartze printzipioei jarraikiz. Toki entitateek Foru Ogasuneko tributuetan parte hartzeko sistema bat prestatuko du Nafarroako Gobernuak, finantza-egonkortasuna eta -gaitasuna izanik euren eskumenak behar bezala burutzen utziko diena.

**ZORTZIGARRENA.** Gero eta bikoiztasun handiagoa erakusten duen gizarte honetan, botere publikoen eskakizunetako bat izan behar da gehiago eta gutxiago dutenen arteko distantziak murrizteko neurriak aplikatzea. Horregatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Bazterketaren Plana bete dezan bere termino guztietan, gizarte honek sortzen dituen ezberdintasunei modu ezberdinean aurre egiteko bitarteko gisa.

**BEDERATZIGARRENA.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehen bait lehen Biltzar honetan onetsitako erabaki proposamena bete dezan eta aurkez dezan PFEZaren zerga-ordainketarako moduluen sistemaren beherapena. Beherapen horrek kontuan hartuko du nekazari eta abeltzainek beren produktio kostuetan izan duten igoera eta baita zerga-ordainketa aldakor eta dinamikoa ere, zerga-bilketako modulua Nafarroako nekazari eta abeltzainen etekin garbira egokitu duena.

**HAMARGARRENA.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Plan Gerontologikoan jasotako neurriak, zaharrak beren etxeetan jarraitzearekin zerikusia dutenak, gara ditzan. Honakoei buruzkoak: etxeko telelaguntza, onura fiskalak larriki ezgaitua dagoen kide bat duten familia unitateei eta konpentsazio fiskalak zaharrak zaintzen aritzen diren senitartekoei.

**HAMAIKAGARRENA.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako familien egoera fiskala hobetu dezan: jaiotza-tasa, familia ugariak, familiari laguntzea eta jarduera profesionala bateratzea, etxebizitzak eskuratzeko laguntza zuzenak, ezgaituei eta sektore kaltetuenei laguntze. Halaber, premiatzen du Nafarroako familia guztiak Estatuko Araubidean

bezalako egoera fiskal berdinean edo hobean egon daitezen ahalbidetu dezan.

**HAMABIGARRENA.** Nafarroako Parlamentuak bere babesaren adierazten dio bularretako minbizia duten emakumeen kolektiboari, bai eta gaitasun horren inguruko kontzientziario eta prebentzio programak bultzatzen eta hobetzen jarraitzeko asmoa duela ere.

**HAMAIRUGARRENA.** Nafarroako Gobernuak Bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko Foru Legea bere eskumeneko erakunde guztietan betetzen dela zainduko du. Foru lege hori Parlamentu honetako Osoko Bilkurak onetsi zuen 2000ko ekainean.

**HAMALAU GARRENA.** Nafarroako Gobernuak beharrezko tresnak erabiliko ditu garestiak eta luzeak suertatu ohi diren prozesu judizialak saihe-tsiko dituen familia bitartekaritzako sistema bat ezartzeko; hala, hautsitako bikotearen seme-alaben sufrimendu handiagoa ekidinen da.

**HAMABOSGARRENA.** Nafarroako Gobernuak premiatzea berehala bete dezan Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitakoa, Batzorde Misto bat sortuz –Parlamentua-Ministerioa-Bardeako Komunitatea–, tiro poligonoa 2001eko ekainaren 9tik aurrera luza ez dadin.

**HAMASEIGARRENA.** Espainiako Gobernuak premiatzea, berehala, “kuartelekiko intsumiso” direnei irekitako kausak artxibatu eta kartzeletik atera ditzan; Parlamentu honen nahia baita intsumisoak kargu orotatik libre geratzea.

**HAMAZAZPIGARRENA.** Edozein gizarte modernoren erronkarik handiena biztanleen garapen iraunkor eta jasangarria lortzeko –bai haien bizi-kalitateari bai ingurumenarekiko errespetuari dagokionez– azpiegituretan inbertsioak egitean datza.

Nafarroako Foru Komunitateak garapenaren abangoardian egon ahal izateko beharrezko dotazioak izan behar ditu. Beharrezkoak diren inbertsioen zati handi batek izaera estrategiko du eta hurrengo urteetan bultzatu egin behar dira, Nafarroa Espainian eta Europarekiko toki pribilegiatuan gera dadin.

Helburu eta jarduerak honakoetarantz zuzendu behar dira:

1. Errepideen Plan Zuzentzailea garatzea, Nafarroako Errepide Sarearen garapen iraunkorra ahalbidetzeko.

2. Nafarroako autobide eta errepide handiei buruzko Plana. Lehentasuna izanen dute jarduera ardatz hauek: Iruñea-Logroño, Tudela-Medinaceli

errepide handiko Nafarroako zatia, Pirinioa zeharkatzen duen Nafarroa-Frantzia ardatza, Iruñea-Huesca eta 121 eta 232 errepide nazionalak.

3. Trenbide azpiegiturek, trenbideak Iruñean egiten duen ingurua ezabatuz, trenbide geltoki berria eraikiz, trenbide pasagune guztiak kenduz, abiadura handiko Nafarroako korridorea eraikiz.

4. Nafarroako Ubidea garatzea Estatuarekin sinatutako hitzarmenean ezarritako erritmoan.

**HEMEZORTZIGARRENA.** Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoen helburua izan behar du barne merkataritzaren kalitate eta lehiakortasuna hobetzea, merkataritzako banaketa sektore eraginkor eta dinamikoa lortzeko.

Hori dela eta, egin beharreko ekintzak ondokotan oinarrituko dira:

1. Merkataritza enpresa txikia eta ertaina bai eta zerbitzuena ere bultzatzea. Hartara, horien kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko plan bat egingen da eta plan horrek, beste neurrien artean, ondokoak bultzatuko ditu: aldatetako egungo teknologian; prestakuntza iraunkorra batez ere espezializazio eta informatizazioari dagokionean, azken batean, gizartearentzat eta Nafarroako ekonomia-erantzutzaile hain garrantzitsua den sektore hori modernizatzeari dagokionean.

2. Merkataritzako asoziazionismoa sustatzea eta kontsumitzailearen babesaren hobetzea. Hori guztia, Nafarroako merkataritza eskaintzaren beharrezko arauketarekin batera.

**HEMERETZIGARRENA.** Nafarroako Foru Komunitatea beti izan da aitzindaria eta Espainiari aurrea hartu izan dio hezkuntzako erreformak eta teknologia berriak oro har ezartzean; hala, batzuetan, beste erkidego batzuekiko erreferentzia izan ohi da.

Horrenbestez, indartu egin beharko dira: Hezkuntza eta Industriako departamentuen arteko lankidetzaren Lanbide Heziketa integratuaren markoan; enpresekiko lankidetzaren prestakuntza lan zentroetan egin dadin; hezkuntzako eskaintzaren definizio gero eta egokiagoa produkzioaren eta teknologia berrien sistemarekiko.

Zentzu horretan gogoan hartu beharko dira Nafarroako Teknologia Planaren eta beharrezkoa zaigun Zientzia eta Ikerketari buruzko Foru Legearen jarduerak, sustapena eta betetzea.

Arreta berezia eskainiko zaio energiako iturri berri, garbi eta berriztagarriak garatzei bai eta horrek Lanbide Heziketarekin duen harremanari.

**HOGEGARRENA.** Ondare historiko-artistikoa zaintzea etorkizunari begiratzea da, eraitsitakoa edo egoera arkitektoniko onean ez dagoena berreskuratzea gure herriaren sustraiak berreskuratzea da. Nafarroa, Estatu Espainolean, hain zuzen ere kontserbazio jarduera horregatik bereizi izan da; izan ere, etengabe jarduten baitu Bianako Printzea Erakundearen bitartez-lehenago Monumentuen Batzordea zegoen- duela 150 urte baino lehenagotik. Beraz, Nafarroak bere ondare historiko-artistikoa zaintzen, zaharberitzen eta babes-ten mendeetan zehar egin duen ahaleginari jarrai-

pena eman eta jarduera hori sustatu beharra dago.

Ahalegin horien bidez hobeki zabalduko da eta gehiago ezagutu eta gozatuko dute herritarrek.

Gainera, ondare historiko-artistikoaren eremuan, hura mantendu eta zaintzeko kezka hara- tago, gizarte eta kultur arloko dinamizatzailer gisa erabiltzeko beharra ere sortzen da.

Horrenbestez, beharrezkoa da ondare histori-ko-artistikoa zaharberitu eta birgaitzeko plan zuzentzaile bat prestatzea finantziario eta zahar-berritze prozesuak arintzeko.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--